

# cineclub fas zinekluba

ABRIL/MAYO/JUNIO 2025 APIRILA/MAIATXA/EKAINA

El mejor cine de autor en V.O.

J.B.an zinemarik onena

Mulholland Drive
La luz que imaginamos
Eisenstein en Guanajuato
Azken erromantikoak
El baño del diablo
La madre de todas las mentiras
Grand Tour
No esperes demasiado del fin del mundo
Esquece Monelos
Reas
Finis Terrae

## La luz que imaginamos

Payal Kapadia

# HAZTE SOCIO/A



La mejor oferta cinematográfica en Bilbao
Todas las sesiones en V.O.
Conferencias sobre cine
Coloquios con directores, actores, críticos...
Acceso a la biblioteca del cineclub
Invitación a eventos cinematográficos
De lunes a viernes precio de día del espectador en los Multicines

Bilboko zinema eskaintarik onena
Emanaldi guztiak J.B.an
Zinemari buruzko hitzaldiak
Zuzendaria, aktore, kritikarekin... solasaldiak
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera
Zine ekitaldiatarako gonbidapenak
Multicines-etan astelehenetik ostiralera ikuslearen egunezko prezioan

# BAZKIDE EGIN

# PROGRAMA EGITARAGUA

## ABRIL / APIRILA

**1** MULHOLLAND DRIVE (2001)

**8** LA LUZ QUE IMAGINAMOS (2024)

**22** EISENSTEIN EN GUANAJUATO (2015)
+El tercer paisaje

**29** AZKEN ERROMANTIKOAK (2024)
+Errotatiba

## MAYO / MAIATZA

**6** EL BAÑO DEL DIABLO (2024)

**13** LA MADRE DE TODAS LAS MENTIRAS (2023) +Puzzleak

**20** GRAND TOUR (2024)

**27** NO ESPERES DEMASIADO DEL FIN DEL MUNDO (2022)

## JUNIO / EKAINA

**3** ESQUECE MONELOS (2016)
+Abellón

**10** REAS (2024)
+17 minutos con Nora

**17** FINIS TERRAE (1929)

# TARIFAS / SALNEURRIAK

## CARNET SOCIO/A KIDE TXARTELA

| | |
|---|---|
| Normal/normala (abr-jun/api-eka) | 56€ |
| Estudiantes y desempleados<br>Ikasle eta langabeziak | 44€ |

Entrada libre a todas las sesiones Saio guztietarako sarrera librea

## BONO 10 SESIONES
## 10 SARRERA BONUA

Válido por dos cursos / años
bi ikasturte/urtetarako balio du

45€

## PASES PARA NO SOCIOS
## EZ BAZKIDEEN PASEAK

venta en taquilla el día de la sesión
salmenta leihatilan saioaren egunean

| | |
|---|---|
| Normal/Normala | 5€ |
| Estudiantes y desempleados<br>Ikasle eta langabeziak | 3€ |
| Inst. Francés, Inst. Estudios del ocio | 3€ |
| Estudiantes escuelas de cine<br>Zinema eskolako ikasleak | 2€ |

# PRIMAVERA 2025 UDABERRIA

# PRESENTACIÓN AURKEZPENA

2025 paregabe honetan pasatzen ari gara, jada uste genuen dena bizi izan genuela, gerren eta pandemien ostean, baina AEBetako hauteskundeek errealitateari beste bira bat eman diote. Ikusiko dugu zer ekartzen duen historiak. Eta horrek guztiak zinemari eragiten dio beti, Donostiako Zinemaldian Zinemaldiaren espresuki laguntza bizi izan genuen jada Argentinako Zinemarekin.

Eta zinemaz hitz eginez, bada gaurkoan galdetzen diguten kazetarien galdera bat: ‘Zineklub batek’ ba al du lekurik gaur egun? Zineklub hitza orokortu edo/eta banalizatu egin dela ere aipatu behar da, baina Fas zineklubak bere lanean jarraitzen du, ia bere jatorritik, hizkuntza zinematografikoa aztertzen eta ikus-entzunezko lan bakoitzaren erraietan sakonduz, abangoardia bilatuz, pantailan bizitakoa kontatzeko eta hausnartzeko beste modu bat. Eta Iratxe lagunaren bi zutabe txiki etortzen zaizkigu burura: Filmak ikusten jakitea? / Non dago zinema ona? Bakoitzak bere erantzuna aurkituko du (eta ia guztiek balio dute).

Geuk, gure gauza egiten dugu, eta udaberri honetan, zinema fantastikoa eta LGTBIQ+ zinema, zinemaren zinema: emakumeak, gizonak eta pertsonak. Payal Kapadia, Veronika Franz, Asmae El Moudir, Ángeles Huerta, Lola Arias, Lynch, Jude, Gomes, P. Sañudo...amets egiteko eta/edo pentsatzeko garaia.

Vamos caminando por este singular 2025, ya creíamos que se había vivido de todo, tras guerras y pandemias, pero las elecciones USA han dado una vuelta de tuerca más a la realidad. Veremos en qué depara la historia. Y todo esto, siempre afecta al cine, ya vivimos en el último Zinemaldia donostiarra el expreso apoyo del Festival con el Cine Argentino.

Y hablando de cine, hay una pregunta actual de periodistas que nos cuestionan: ¿Si hoy en día tiene cabida ‘un cineclub’?. También hay que mencionar que la palabra cineclub se ha generalizado y/o banalizado, pero el cineclub Fas continúa con su labor, casi desde su origen, en estudiar el lenguaje cinematográfico y adentrarse en la tripas de cada trabajo audiovisual, buscando la vanguardia, otra manera de narrar y reflexionar sobre lo vivido en la pantalla. Y me vienen al recuerdo dos columnillas de nuestra amiga Iratxe: ¿Saber ver el cine? / ¿Dónde está el buen cine? Cada cual encontrará su respuesta (y casi todas válidas).

Nosotras a lo nuestro, y esta primavera, cine fantástico y cine LGTBIQ+, cine de cine: mujeres, hombres y personas. Payal Kapadia, Veronika Franz, Asmae El Moudir, Ángeles Huerta, Lola Arias, Lynch, Jude, Gomes, P. Sañudo… tiempo para soñar y/o pensar.

# Mulholland Drive

Película de culto del cine estadounidense que fue concebida como primer episodio de una serie de televisión. Una joven aspirante a actriz llega a Los Ángeles y se aloja en el apartamento de su tía, allí conoce a Rita, una mujer que padece amnesia a causa de un accidente ocurrido en Mulholland Drive, juntas deciden investigar quién es esa mujer.

La trama incluye historias aparentemente no relacionadas pero que se conectan con el tiempo de diversas maneras, (¿o la misma historia vista desde ángulos diferentes?) así como algunas escenas surrealistas e imágenes que se relacionan con la narrativa críptica, marca característica del cine de Lynch. En su clímax final, rompe concatenaciones, identidades, percepciones lineales,… pero logra que todos los elementos sean coherentes.

Nominada al Oscar de mejor dirección, fue premiada en Cannes y en Toronto como Mejor Director.

Estatu Batuetako zinemaren kultuzko filma, telesail bateko aurreneko atal gisa sortua izan zena. Aktore izan nahi duen neska gazte bat Los Angelesera joaten da, eta izebaren etxean jartzen da bizitzen. Hor, Rita ezagutuko du, amnesiak jota dagoena Mulholland Driven izandako istripu bategatik. Hala, elkarrekin ikertzen jarriko dira nor den emakume hori. Trama honetan, itxura batean elkarrekin loturik ez dauden istorioak gertatzen dira, baina denborarekin era batera baino gehiagotara konektatuko dira (edo istorio bera da ikuspegi batetik baino gehiagotatik begiratuta?); era berean, eszena surrealistak eta irudi batzuk erlazionatuko dira kontakizun kriptikoarekin; hori da Lynchen zinemaren ezaugarria. Amaierako klimaxean, puskatuko egingo ditu kateaketak, identitateak, pertzepzio linealak... Baina elementu guztiak koherenteak izatea lortuko du.

Zuzendaritza onenaren Oscarrerako izendatu zuten, Cannesen eta Toronton Zuzendari Onenarenak irabazi zituen.

19:45
01/04/2025

# Mullholland Drive



**Estados Unidos/Francia · 2001 · 147 min**

**Zuz/Dir.** David Lynch · **G.** David Lynch · **Arg/Fot.** Peter Deming · **Mus/Mús.** Angelo Badalamenti · **Akt/Int.** Naomi Watts, Jeanne Bates, Justin Theroux, Laura Harring, Robert Forster, Brent Briscoe

**Inv / Gonb.** Victor Iturregui

# La luz que imaginamos
# All We Imagine as Light

Mujeres que se sienten encerradas en su supuesta libertad, porque la dinámica de la sociedad trata de reducir todo a un estándar. Una película en dos actos: uno el de la presión social; y otro colorista y lleno de luz. Y el tránsito que lleva de un estado a otro.

En Mumbai, la vida rutinaria de Prabha, enfermera, se altera cuando recibe un regalo de su marido que trabaja en Alemania. Su compañera de piso, Anu, intenta encontrar un lugar para intimar con su novio. Juntas emprenden un viaje a una ciudad costera y allí sus deseos se manifiestan.

Una preciosa historia universal de amistad, que muestra una India inédita, genuina, femenina y feminista. Obra muy premiada, entre otros galardones el Gran Premio del Jurado en Cannes 2024, y el Premio RTVE 'Otra mirada' en San Sebastián.

Beren askatasun ustekoan itxita dauden emakumeak, gizartea bere dinamikandena estandar batera murriztensaiatzen da eta. Film bat bi ekitalditan: batean gizarteko presioa; eta bestean kolorea eta argitasuna. Eta egoera batetik besterako igarobidea.

Mumbain, Prabha erizainaren eguneroko bizia aldatu egingo da Alemanian lanean ari den senarraren oparia jasotzen duenean. Etxekidea, Anu, mutil-lagunarekin bakarrik egoteko toki bila ari da. Elkarrekin bidaia bat abiatuko dute itsasbazterreko hiri batera, eta han agertu egingo dituzte beren desirak.

Adiskidetasun istorio unibertsal eder bat, India ezezagun, genuino, femenino eta feminista bat erakusten duena. Oso saritua izan den obra: besteak beste, Cannesko Epaimahaiaren Sari Handia 2024an eta RTVEren Otra Mirada saria Donostian.

19:45
08/04/2025

# La luz que imaginamos



**Francia/India/P. Bajos/Lux./Italia/Suiza/USA/Bélgica· 2024 · 118 min**

**Zuz/Dir.** Payal Kapadia · **G.** Payal Kapadia, Himanshu Prajapati, Robin Joy, Naseem Azad · **Arg/Fot.** Ranabir Das · **Mus/Mús.** Topshe · **Akt/Int.** Kani Kusruti, Divya Prabha, Chhaya Kadam

**Inv / Gonb.** Jorge Barrio

# Eisenstein en Guanajuato

Crónica de la estancia de Einsenstein en México, donde pasó más de un año (1931) después de estar en Hollywood. Se trasladó allí fascinado por la idea de rodar los ritos del Día de los Muertos, y allí llegó con su variopinto séquito. Fue recibido como la celebridad que era, pero diversos avatares hicieron que la cinta ¡Que Viva México! quedara inconclusa. En 1979 Grigori Aleksandrov, a partir de los storyboards originales de Eisenstein, compiló una aproximación al montaje que éste planeaba.

Tragedia y parodia, belleza y espanto, una provocación que desmitifica la figura del cineasta y que Greenaway se puede permitir porque conoce muy bien su obra y la admira.

No es una biografía, sino un bosquejo impresionista de lo que quizás pudo pasar, y tal vez pasó, pasado por el barroco estilo de Peter Greenaway.

Eisensteinek Mexikon egindako egonaldiaren kronika, Hollywooden egon ondoren urtebete baino gehiago pasatu zuen han (1931). Mexikora aldatu zen Hilen Eguneko errituak filmatzeko ideiarekin txoraturik, eta hantxe agertu zen bere jarraileriarekin. Ospetsuak hartzen diren eran hartu zuten, baina gorabehera batzuk direla medio amaitu gabe gelditu zen QueVivaMéxico filma. 1979an, Eisensteinen jatorrizko storyboarda-k oinarri hartuta, Grigori Aleksandrovek hurbilketa bat egin zuen Eisensteinek egin asmo zuen muntaketara.

Tragedia eta parodia, edertasuna eta beldur-ikara, zinemagilearen figurari mitikotasuna kentzen dion probokazioa. Greenawayk egin dezake ondo ezagutzen duelako haren obra eta miretsi egiten duelako.

Ez da biografia bat, gertatu ahal izan zenaren zirriborro inpresionista bat baizik (beharbada gertatu zen), Peter Greenawayren estilo barrokotik iragazita.

19:45
22/04/2025

# Eisenstein en Guanajato



**Países Bajos/Bélgica/Finlandia/México/Francia 2015 · 105 min**

**Zuz/Dir.** Peter Greenaway · **G.** Peter Greenaway · **Arg/Fot.** Carlos Salom, Reinier van Brummelen · **Mun/Mon.** Elmer Leupen · **Akt/Int.** Elmer Bäck, Luis Alberti, José Montini, Sara Juárez, Maya Zapata

**+XII KORTeN! *El tercer paisaje***, Julen Etxebarria. EH, 2024, 12'. Doc

**Inv / Gonb.** Julen Etxebarria

# Azken erromantikoak
# Los últimos románticos

Un pueblo industrial de Álava, y en él Irune, una mujer solitaria que trabaja en una fábrica de papel, y cuya vida se reduce a un pequeño círculo de personas, compañeros de trabajo, una vecina y el empleado de Renfe al que repetidamente pregunta por el horario de los trenes a los que nunca sube.

Su frágil equilibrio se rompe cuando le encuentran un bulto en el pecho, y al mismo tiempo se vive un conflicto laboral en su fábrica. Su vida da un giro.

Película basada en la novela homónima de Txani Rodriguez. Film arriesgado e imaginativo, por momentos desesperanzado, e impregnado de una atmósfera triste donde sólo la fantasía permite una cierta alegría. Un trabajo que se ha calificado como un paso hacia adelante de su director, y en el que destaca la estupenda interpretación de Miren Gaztañaga.

Arabako industria-herri baten kanpoaldean, Irunek paper-fabrika batean egiten du lan. Bere bizitza ezagunen zirkulu txiki batera mugatzen da: bere lankideak, lagun baten antzeko zerbait partekatzen duen auzokide bat eta inoiz hartzen ez dituen trenen ordutegiak kontsultatzen dizkion Renfeko langile bat.
Bere oreka hauskorra lehertu egingo da bular batean koskor bat detektatzen diotenean; aldi berean, lan-gatazka bat izango du. Orduan, bere bizitzak ustekabeko bira bat hartuko du.

Txani Rodriguezek 2020an idatzitako izen bereko eleberrian oinarrituta dago. Film arriskutsua eta irudimentsua, une batzuetan esperantzari biderik ematen ez diona eta atmosfera goibel batekin zipriztindua, non fantasiak baino ez duen aukerarik ematen poz txikiren bat izateko. Lan honekin zuzendariak aurrerapausoa eman duela esan izan da. Nabarmentzekoa Miren Gaztañagaren interpretazio zoragarria.

19:45
29/04/2025

# Azken erromantikoak




**EH · 2024 · 102 min**

**Zuz/Dir.** David Pérez Sañudo · **G.** David Pérez Sañudo, Marina Parés · **Arg/Fot.** Victor Benavides **Mus/Mús.** Beatriz López Nogales · **Akt/Int.** Ignacio Mateos, Miren Gaztañaga

**+XII KORTeN!:** ***Errotatiba***, Iratxe Fresneda. EH, 2024, 8'. Doc

**XIII Sesión Aitzol Aramaio / XIII. Aitzol Aramaio Saioa**

**Inv / Gonb.** Iratxe Fresneda, David P.Sañudo, Txani Rodriguez

# El baño del diablo
# Des Teufels Bad

Una película de terror psicológico que no pretende asustar sino trasmitir malestar. Trata de loscasos de suicidio en la Alta Austria de la segunda mitad del siglo XVII, un tema estudiado por la académica Kathy Stua.

Pueblos rodeados de profundos bosques, en lo alto de una colina una mujer ha sido ejecutada y expuesta a la vista de todos tras matar a un bebé. Después de este inicio impactante, el film comienza a mostrar la vida cotidiana de los campesinos y narra la historia de Agnes, una mujer muy religiosa, que se casa con Wolf, dispuesta a ser una buena esposa. Su deseo es tener un hijo pero su marido se niega a tener relaciones sexuales, y ella cada vez se ve más atrapada en un camino turbio y solitario.

Una visión hermosa y desoladora de un estado de depresión.

Beldurrezko film psikologikoa: ez du ikaratzeko asmorik, egonezina transmititzekoa baizik. XVII. mendearen bigarren erdian Austria Garaian izandako suizidio kasuen gainekoa da, Kathy Stua ikerleak azterturiko gaia.

Baso sakonez inguraturiko herriak ageri dira. Muino baten kaskoan, emakume bat hil egin dute, eta denen aurrean jarri, haurtxo bat hil duelako.

Hasiera gogor horren ondoren, filma baserritarren eguneroko bizia erakusten hasiko da, eta Agnesen istorioa kontatuko du, oso emakume erlijiosoa bera. Wolfekin ezkonduko da, emazte ona izateko prest. Haren gogoa da ume bat izatea, baina senarrak ez du harreman sexualik izan nahi, eta gero eta harrapatuagoa geldituko da bide ilun eta bakarti batean. Depresio egoera baten ikuspen eder eta suntsigarria.

19:45
06/05/2025

# El baño del diablo



**Austria/Alemania · 2024 · 121 min**

**Zuz/Dir.** Severin Fiala, Veronica Franz · **G.** Severin Fiala, Veronica Franz · **Mus/Mús.** Anja Plaschg · **Arg/Fot.** Martin Gschlacht · **Akt/Int.** Anja Plaschg, Martin Gschlacht

**Sesión Fas & FANT 31 Saioa**

# XII. KORTeN! 2025

## Festival de cortometrajes
## Film laburren zinemaldia

ZINEBI

Babeslea
Patrocinador

**2025/04/22**
**KORTeN! (7)** El tercer paisaje
Julen Etxebarria. (2024) EH. 12'. Dok

**2025/04/29**
**KORTeN! (8)** Errotatiba
Iratxe Fresneda. (2024). EH. 8'. Dok

**2025/05/13**
**KORTeN! (9)** Puzzleak
Kote Camacho. (2024) EH. 20'. Fik

**2025/06/03**
**KORTeN! (fc)** Abellón
Fon Cortizo. (2024) Galicia, 19'. Dok

**2025/06/10**
**KORTeN! (fc)** 17 minutos con Nora
Imanol Ruiz de Lara. (2021) Madrid, 13'. Fik

# XII. KORTeN! 2025

## Festival de cortometrajes
## Film laburren zinemaldia















# La madre de todas las mentiras

## Kadib Abyad

Un original documental autobiográfico sobre la propia directora y su familia. Su abuela, una mujer autoritaria, prohibió las fotografías en la casa porque, decía, eran pecaminosas. Sólo había una foto del rey Hassan II. Asmae no tiene fotos de pequeña, solo una que su madre ha podido conservar. A partir de esa foto, inicia la búsqueda sobre su infancia y su familia. Y como resultado, una red de mentiras.

Como contexto de la historia personal, acontecimientos en el país, como los Motines de Subsistencia de Marruecos en 1981. El 6 de junio de ese año fueron fuertemente reprimidas las protestas populares surgidas en varias ciudades de Marruecos. Se utilizan dioramas con edificios y calles del barrio, dibujos y figuras elaboradas por el padre, a las que se da vida para representar a los padres, la abuela, los vecinos.

Zuzendariaren eta haren familiaren gaineko dokumental autobiografiko originala. Amonak, emakume autoritarioa bera, argazkiak debekatu zituen etxean, esaten zuelako bekatuzkoak zirela. Hassan II.aren argazki bat baino ez zegoen. Asmaek ez du haur koskorra zeneko argazkirik, amak gordetako bat besterik. Argazki horretatik abiaturik, haurtzarorako eta familiarenganako bilaketa bat hasiko du. Eta emaitza gezur sare bat izango da.

Istorio pertsonalaren testuinguru modura, herrialdeko gertaerak agertuko dira, hala nola Marokoko 1981eko Janari Matxinadak. Urte horretan, ekainaren 6an, herri protestak gogor erreprimitu zituzten Marokoko zenbait hiritan. Auzoko eraikinen eta kaleen dioramak erabiliko dituzte; aitak egindako marrazkiak eta irudiak dira. Haien bitartez, bizia emango diete gurasoei, amonari eta auzotarrei.

19:45
13/05/2025

# La madre de todas las mentiras



**Marruecos/Egipto/Arabaia Saudí/Catar · 2023 · 97 min · Doc**

**Zuz/Dir.** Asmae El Moudir · **G.** Asmae El Moudir · **Mus/Mús.** Nass-El Ghiwane · **Arg/Fot.** Hatem Nechi · **Akt/Int.** (Documental) Zahra Jedat, Mohamed El Moudir, Ouarda Zorkani

**+XII KORTeN! Puzzleak (Bortxaketaren jauregia)**, Kote Camacho. EH, 2024, 15’.

**Inv / Gonb.** Kote Camacho, Ainara López

# Grand Tour

Rangún, Birmania, 1917. Edward, funcionario del Imperio Británico, presa del pánico huye de su prometida Molly el día que ésta llega para casarse. En su viaje de huida se pregunta qué habrá sido de ella. Pero Molly está decidida a casarse, y le sigue la pista a través de Asia. De esta manera comienza un viaje por el sudeste asiático, desde Rangún hasta Shanghái, pasando por Manila.

Film que busca la confluencia entre la cultura milenaria que perdura en esos países y la cultura occidental de ahora, en el que Gomes nos presenta un melodrama exótico y romántico, que evoca con nostalgia cierta literatura colonial. En la narración se entremezclan imágenes de marionetas orientales que recrean la historia de los protagonistas.

A destacar la estupenda fotografía que alterna constantemente el color, y el blanco y negro sin motivo aparente.

Rangun, Myanmar, 1917. Edward, Britainiar Inperioko funtzionarioa bera, beldurrak jota dago, eta alde egingo du Molly andregaiarengandik, ezkontzeko etorriko den egunean. Ihesi egindako bidaian, bere buruari galdetzen dio zertan ote den Molly. Baina Molly ezkonduko dela erabakita dago, eta haren arrastoan joango da Asian barrena. Hala, bidaia bati ekingo dio Asia hego-ekialdetik, Rangundik Shanghaira, Manilatik pasatuz.

Herrialde horietan milaka urtetako kulturak nahasten dira Mendebaldeko kulturarekin, eta elkartze hori bilatuko du filmak: Gomesek melodrama exotiko eta erromantiko bat aurkeztuko digu, eta nostalgia apur batez gogoratuko du literatura koloniala. Narrazioan, nahasian agertuko dira ekialdeko txotxongiloen irudiak, protagonisten istorioa birsortuko dutenak. Nabarmentzekoa argazki zoragarria, kolorea etengabe aldatzen duena, eta zuri-beltza, ageriko motiborik gabe darabilena.

19:45
20/05/2025

# Grand Tour



**Portugal/Italia/Francia/Alemania/Japón/China · 2024 · 128 min**

**Zuz/Dir.** Miguel Gomes · **G.** Telmo Churro, Maureen Fazendeiro, Miguel Gomes, Mariana Ricardo, Babu Targino · **Arg/Fot.** Guo Liang, Sayombhu Mukdeeprom, Rui Poças · **Akt/Int.** Gonçalo Waddington, Crista Alfaiate, Cláudio da Silva

**Inv. / Gonb.** Manu Paja (Fas)

Sesión 2564 Saioa

# No esperes demasiado del fin del mundo

## Nu astepta prea mult de la sfârsitul lumii

Comedia negra que hace sátira del mundo del trabajo. Ángela es ayudante de producción y trabaja para una empresa rumana. Por encargo de una multinacional conduce por Bucarest y el resto del país buscando testimonios para un spot sobre seguridad laboral. Un trabajo precario en una Rumania desolada.

Hay escenas y diálogos desternillantes que abordan, desde un panorama geopolítico actual, hasta la forma de la que afrontamos las relaciones sociales a día de hoy, pasando por detalles de la vida diaria del país, presente y pasado. La factura técnica es interesante. Combina el blanco y negro, y el color, en varias secuencias. Las primeras se refieren a lo que ocurre actualmente y las de color para mostrar cómo era la vida en el pasado, una mirada nostálgica que no tiene por qué reflejar la realidad.

Lan munduaren satira egiten duen komedia beltza. Angela produkzioko laguntzailea da, eta errumaniar enpresa baterako jarduten da. Multinazional baten enkarguz, Bukaresten eta herrialdean barrena ibiliko da autoan lan segurtasunari buruzko spot baterako lekuko bila. Lan prekarioa atsekabeturiko Errumania batean.

Badira eszena eta elkarrizketa barregarriak, gaur egungo panorama geopolitikotik begiratuta harreman sozialei aurre egiteko dagoen era ere lantzen dutenak, herrialdearen oraingo eta iraganeko eguneroko bizitzako xehetasunak barne. Egikera teknikoa interesgarria da. Zuri-beltza eta kolorea konbinatzen ditu sekuentzia batzuetan. Zuri-beltzezkoek gaur egun gertatzen denari egiten diote erreferentzia, eta kolorezkoek iraganeko bizimodua erakusten dute, nahiz eta begirada nostalgiko horrek ez duen zertan errealitatea islatu.

19:45
27/05/2025

# No esperes demasiado del fin del mundo



**Rumanía/Lux/Francia/Croacia/Suiza/Reino Unido/Canadá · 2023 · 163 min**

**Zuz/Dir.** Radu Jude · **G.** Radu Jude · **Arg/Fot.** Marius Panduru · **Mun/Mon.** Catalin Cristutiu · **Mus/Mús.** Jura Ferina, Pavao Miholjevic · **Akt/Int.** Ilinca Manolache, Nina Hoss, Ovidiu Pîrsan, Dorina Lazar

# Esquece monelos

Primer largometraje documental de una asturiana afincada en Galicia. Bajo las calles de A Coruña hay un río, por muchos olvidado, pero que sigue ahí, y a veces se desborda. Siguiendo su cauce, aprisionado bajo capas de hormigón, se habla de las relaciones sociales que se tejen en la ciudad. Hablan un alcalde, un gitano, un arquitecto y unas lavanderas. Hablan las fotografías que muestran una A Coruña del extrarradio, en los años 60.

Es documental pero también una historia introspectiva, con pinceladas autobiográficas. Una historia de recuerdos y olvidos, de pensamientos profundos. Esto hace que sea mucho más que un documental de interés para los ciudadanos de A Coruña, trasciende del espacio concreto en que se centra, y pone de manifiesto la voracidad desatada en nombre del progreso que especula sobre los lugares habitados por los menos favorecidos.

Galizian bizi den asturiar baten lehen film dokumental luzea. Coruñako karriketan, ibai bat dago, askok ahaztu egiten dutena, baina hor darraio horrek, eta batzuetan irten egiten da. Ibilguari jarraituz, hormigoizko geruzen azpian preso, hiria ehuntzen duten gizarteko harremanak agertuko dira. Hizketan azalduko dira alkate bat, ijito bat, arkitekto bat eta arropa garbitzaile batzuk. Coruñaren kanpoaldeko auzoak erakusten dituzte argazkiek, 60ko urteetan.

Dokumental da, baina baita istorio introspektibo bat ere, pintzelkada autobiografikoak dituena. Oroitzapenen eta ahanzturen istorio bat, pentsamendu sakonena. Horregatik, ez da bakarrik Coruñako herritarrentzat egindako dokumentala, askoz gehiago baizik: espazio jakin hori ardatz hartuta, agerian jartzen du dena aurrerabidearen izeneanirentsi behar hori, zelan eta behartsuenak bizi diren tokietan espekulatuta.

19:45
03/06/2025

# Esquece monelos




**Galicia · 2017 · 75 min**

**Zuz/Dir.** Ángeles Huerta · **G.** Ángeles Huerta, Antón Nuñez · **Arg/Fot.** Jaime Pérez Fernández · **Mus/Mús.** Sergio Pena Castro · **Akt/Int.** Documental

**+XII KORTeN! (fc)** ***Abellón***, Fon Cortizo. Galicia, 2024, 19’. Fic-Doc

**Inv / Gonb.** Ángeles Huerta, Fon Cortizo

# Reas

Película protagonizada por personas trans, que por su condición, estuvieron presas en cárceles argentinas. En lo que fue la cárcel Caseros, hoy abandonada, reconstruyen escenas de su vida pasada cuando estuvieron allí e imaginan su vida futura bajo la forma de un musical en la que ellas mismas cantan y bailan, la música como terapia reparadora. La cruda realidad se muestra con pinceladas de ficción y se colorea con la música y la danza.

Cine testimonio con aportes innovadores en su puesta en escena, un melodrama carcelario que utiliza el modo de producción de cine documental, y lo impulsa con la puesta en imágenes que recuerda al cine musical clásico. Una aportación a la esperanza, porque atribuye a los sentimientos un puesto prominente para que la sociedad camine hacia la justicia y el entendimiento.

Transak protagonista dituen filma, beren izaeragatik Argentinako kartzeletan preso egon zirenak. Caseros izeneko kartzela zahar batean (gaur abandonatua), iraganean izandako bizitzen eszenak berreraikiko dituzte, eta etorkizuna musikal eran irudikatuko dute, zeinetan kantan eta dantzan jardungo baitira, musika terapia sendagarritzat hartuta. Fikziozko pintzelkadekin egia gordina erakutsi dute, eta musika eta dantza erabiliko dute kolorea emateko.

Eszenaratzean ekarpen berritzaileak egiten dituen testigantza zinema. Kartzela melodrama honek zinema dokumentalaren ekoizkera darabil, eta zinema musikal klasikoa gogorarazten duten irudiekin bultzatua dago. Esperantzarako ekarpena egiten du, sentimenduei toki garaia ematen baitie, gizartea justiziarantz eta ulermenerantz joan dadin.

19:45
10/06/2025

# Reas



**Argentina/Suiza/Alemania · 2024 · 79 min**

**Zuz/Dir.** Lola Arias · **G.** Lola Arias · **Arg/Fot.** Martin Benchimol · **Mus/Mús.** Ulises Conti · **Akt/Int.** (Documental) Yoseli Arias, Ignacio Amador Rodriguez, Estefy Harcastle

**+XII KORTeN! (fc) *17 minutos con Nora*,** Imanol Ruiz de Lara. Madrid, 2021, 17'. Fic
**Sesión Fas & PreZinegoak 2025 Saioa**

**Inv / Gonb.** Alaitz Arenzana, Carlos Loureda

# ZINE GO AK

## Sesión 2566 Saioa

Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao
Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia



# Jean Epstein
## BIOgrafía



(Varsovia, 1897ko martxoaren 25a - Paris, 1953ko apirilaren 3a) 1922an hasi zen *Pasteur* bere lehen film laburra zuzentzen, eta ondoren beste bi film jarraitu zituen, *L'Auberge rouge* eta *Coeur fidèle*, biak 1923koak. *La chute de la maison Usher*, bere filmografiako film aipagarriena, Edgar Allan Poeren hainbat istoriotan inspiratuta dago. *Coeur fidèle*-n, Epsteinek maitasun eta biolentzia istorio xume bat filmatzea aukeratu zuen "oraindik ugariak direnen konfiantza irabazteko, melodrama baxuenak soilik publikoa interesatzen duela uste dutenak".

1920ko hamarkadan Alemaniako espresionismoaren mundu iradokitzaileak eragin zuen, baina baita zinema sobietarren irudiek ere. Gero beste bide bat desberdina aurkitu zuen Bretainia deskubritu zuenean. Orduan, *Finis Terrae* (1929), *Mor vran* (Beleen itsasoa, bretoieraz) (1931), *L'Or des mers* (1932) eta *Le Tempestaire* (1947) bezalako uharteei buruzko dokumentalen bidez adierazi zuen. *Chanson d'Armor* (1934) historiako bretoierazko lehen filma dela dirudi.

(*Varsovia*, 25 de marzo de 1897-*París*, 3 de abril de 1953) Comenzó dirigiendo sus propias películas en 1922 con *Pasteur*, seguida de otros dos filmes, *L'Auberge rouge* y *Coeur fidèle*, ambos de 1923.  *El hundimiento de la casa Usher*, la película más destacada de su filmografía, está inspirada en varios cuentos de Edgar Allan Poe. En *Coeur fidèle*, Epstein eligió rodar una sencilla historia de amor y violencia «para ganar la confianza de aquellos, aún numerosos, que creen que sólo el melodrama más bajo puede interesar al público». En los años 1920 estuvo influido por el mundo evocador del expresionismo alemán, pero también por las imágenes del cine soviético. Después encontró otro camino distinto al descubrir Bretaña. Se expresó, entonces, a través de documentales sobre islas como *Finis Terrae* (1929), *Mor vran* (El mar de los cuervos, en bretón), *L'Or des mers* y *Le Tempestaire*. *Chanson d'Armor* parece ser la primera película en lengua bretona de la historia.

# Finis Terrae

Película muda francesa que se centra en la vida de los recolectores de algas en las costas de Bretaña, y explora temas como el aislamiento, el trabajo y la dura vida en el mar. Se rodó en una estancia del director conviviendo con pescadores, sigue a cuatro de ellos que se encuentran atrapados en una isla y muestra imágenes intensas sobre la fuerza de la naturaleza.

Notable por el uso innovador de técnicas cinematográficas para capturar el paisaje y las emociones de los personajes.
En un texto que presenta la película se explica que la historia que se va a presentar es el recuento de eventos reales interpretados por personas que habitan en los lugares donde los hechos ocurrieron. Así queda claro que lo que veremos es una reconciliación entre elementos dramáticos y verídicos. Como resultado un relato, imágenes en movimiento unidas por una idea.

Film mutu frantsesa, Bretainiako kostako alga biltzaileen bizitza agertzen duena. Bakartasuna, lana eta itsasoko bizimodu gogorra lantzen ditu. Zuzendaria arrantzaleekin bizitzen jarri zen hau filmatzeko. Lau arrantzaleren jarraipena egiten du: uharte batean harrapaturik daude, eta naturaren indarra erakusten duten irudi gogorrak azaltzen dira.

Nabarmentzekoa da teknika zinematografiko berritzaileak darabiltzala paisaia eta pertsonaien emozioak harrapatzeko.
Filma aurkezten duen testu batean, azaltzen da aurkeztuko den istorioa egiazko gertaeren kontakizuna dela gertakarien lekuan bizi direnek interpretatua. Hala, argi gelditzen da ikusiko duguna elementu dramatikoen eta egiazkoen uztarketa bat dela. Kontakizun bat izan da emaitza, ideia batek loturiko irudiak mugimenduan.

19:45
17/06/2025

# Finis Terrae



**Francia · 1929 · 80 min**

**Zuz/Dir.** Jean Epstein · **G.** Jean Epstein · **Arg/Fot.** Joseph Barthes, Goesta Kottula · **Mus/Mús.** Robert Israel · **Akt/Int.** Gibois, Jean-Marie Laot, Malgorn, François Morin, Ambroise Rouzic

**Cine mudo con música en directo / Zinema mutua zuzeneko musikarekin**

**Inv / Gonb:** Josetxo Fedz. De Ortega (piano), Joseba Lopezortega

# Patrocinadores y colaboradores Babesle eta laguntzailea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bilbao

HOTEL ABANDO
★★★★
ARÁNZAZU HOTELES

MULTICINES - 8

ZINE GO AK

FANT
31 | BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA
FESTIVAL DE CINE FANTASTICO DE BILBAO
BILBAO FANTASY FILM FESTIVAL

**Oficina: Centro Cívico de Olabeaga, San Nicolás de Olabeaga 33, 2º - Tel.: 618 318 431**
**info@cineclubfas.com / www.cineclubfas.com / Bluesky: @cineclubfas.bsky.social /**
**Facebook: Cineclub Fas / Instagram: @faszinekluba**
**Proyecciones: Salón Indautxu (Plaza Indautxu)**